



## **REGLAMENTO DE FUNCIONAMIENTO DE LA MESA DEL COMERCIO DEL MUNICIPIO DE PORTUGALETE**

El Ayuntamiento Pleno de la Noble Villa de Portugalete, en sesión ordinaria celebrada el 27 de noviembre de 2008, acuerda constituir un órgano consultor del comercio del Municipio, que se denominaría “Mesa del Comercio”, donde tendrían cabida junto al Ayuntamiento, las asociaciones de comerciantes de Portugalete y otras instituciones. En este marco se han celebrado hasta el presente momento, diversas reuniones, llegando el momento de regular reglamentariamente su funcionamiento.

### **CAPÍTULO I DISPOSICIONES GENERALES**

#### **Artículo 1. Objeto.**

El presente Reglamento tiene por objeto regular la constitución y el régimen interno de funcionamiento de la Mesa del Comercio.

#### **Artículo 2. Naturaleza.**

La Mesa del Comercio se constituye como consejo sectorial de conformidad con lo previsto en el art. 69 de la Ley 7/1985 de Bases de Régimen Local, arts.130 y 131 del R.D. 2568/1986 del Reglamento de Organización y funcionamiento de las Corporaciones Locales y en el art. 22.2 de la ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, adscribiéndose al Área Municipal de Consumo y Comercio, o a la que tenga las competencias en esta materia, siendo el órgano consultivo en materia de comercio local e inspirándose en los principios de participación ciudadana y defensa de los intereses generales de la distribución comercial en la ciudad.

#### **Artículo 3. Sede y Domicilio.**

La Mesa del Comercio tendrá su sede y domicilio en las dependencias del Área de Consumo y Comercio del Ayuntamiento de Portugalete.

#### **Artículo 4. Funciones.**

1. Fomento, promoción y desarrollo del comercio de Portugalete, mediante la realización de todo tipo de actuaciones que redunden en beneficio tanto del sector, como de la posición económica de la Villa.
2. Promoción local y comarcal de Portugalete como espacio comercial y de ocio.
3. Colaborar con las diferentes Administraciones Públicas competentes en la promoción e implantación de medidas de carácter normativo, urbanístico, medio ambiental, social, económico o de cualquier otra naturaleza, que favorezcan un desarrollo equilibrado y sostenible del sector comercial de Portugalete.



4. Realización de trabajos de investigación y desarrollo del sector comercial.
5. Organización de actividades de carácter sociocultural y de promoción empresarial, tales como: cursos, seminarios y conferencias, así como cualquier otro tipo de actividad de carácter formativo e informativo dirigido, tanto al sector comercial, como a la población en general.
6. Producción y reproducción de materiales dirigidos a la información, formación y promoción del sector comercial de Portugalete.
7. Organización y fomento de actividades de animación comercial.
8. Propiciar y colaborar en la recuperación, adecuación y mejora de espacios urbanos, que redunden en beneficio del comercio de la Villa.
9. Promover la obtención de recursos económicos, propios y ajenos, para la financiación de las actividades.
10. Constituirse en foro técnico y consultivo ante el desarrollo de proyectos de interés comercial y económico para Portugalete. Proponiendo al Ayuntamiento de Portugalete, cuántas medidas, iniciativas y propuestas considere conveniente para el desarrollo y mejora del sector
11. Las actividades serán financiadas por las Asociaciones de Comerciantes, Centro Comercial Ballonti y el Ayuntamiento, cuya aportación se verá condicionada por la disponibilidad presupuestaria de cada ejercicio.
12. Constituirse en entidad de colaboración público-privada con entidad jurídica propia. En caso de que los integrantes que forman parte de esta Mesa decidan que sea la mejor forma de fomentar, promocionar y desarrollar el comercio de Portugalete.

#### **Artículo 5.- Composición**

La Mesa del Comercio de Portugalete estará compuesta por los siguientes miembros:

- a) El Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Portugalete, que ostentará su presidencia. En caso de ausencia, actuará como Presidente el Concejal Delegado del Área de Consumo y Comercio.
- c) El Concejal Delegado del Área de Consumo y Comercio, que será su Vicepresidente.
- d) Un representante de cada grupo político con representación municipal.
- e) El Técnico del GATC, que actuará también como secretario. En caso de ausencia actuará como secretario el Técnico Municipal.
- f) El Técnico Municipal responsable del Área de Consumo y Comercio.
- g) Tres representantes para el conjunto de las asociaciones de comerciantes y hosteleros del municipio. Esta representación se establecerá en función



del número de asociados que figure en el censo actualizado de la Cámara Oficial de Comercio, Industria y Navegación de Bilbao y del área de influencia de la asociación.

- h) Un representante del Centro Comercial Ballonti.
- i) Un representante del Departamento de Comercio del Gobierno Vasco.
- j) Pondrán participar, con voz pero sin voto, y cuando así lo estime oportuno el Ayuntamiento o sea solicitado por la propia Mesa del Comercio, en virtud de los temas a tratar en el orden del día, los concejales delegados de las áreas de Urbanismo, Turismo, Cultura o persona en quien deleguen. También podrán participar, en las mismas condiciones, a petición de cualquiera de los miembros de la y previo acuerdo de la propia mesa, cualquier otra persona, siempre que sea comunicado por escrito al Secretario de la mesa con una antelación de 24 horas.

La composición de la mesa quedará abierta para poder incorporar tanto a un representante de los mercados de venta ambulante existentes en el municipio, como a aquellos representantes que se consideren oportunos para el mejor cumplimiento de los fines perseguidos.

#### **Artículo 6. Designación, sustitución y cese.**

1. Los miembros señalados en los apartados a) y b), serán los que en el momento de celebración de las reuniones estén en esos cargos.
2. Los miembros señalados en los apartados e), f), g), h) por sus respectivas instituciones u organización.
3. Todas las organizaciones e instituciones representadas, designarán, al mismo tiempo a los encargados de suplirlos en caso de inasistencia justificada.
4. En cualquier momento, las organizaciones e instituciones representadas en la Mesa, podrán proceder a la sustitución de los miembros titulares o suplentes por ellos designados, comunicándolo al secretario de la Mesa, que lo elevará al Alcalde-Presidente para su conocimiento.
5. Sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado anterior, los miembros de la Mesa cesarán por renuncia formalizada ante la misma, o cuando se produzca causa que los inhabilite para el ejercicio de funciones o cargos públicos.

#### **Artículo 7. Funcionamiento.**

1. La Mesa del Comercio se reunirá anualmente en una sesión ordinaria, que se celebrará en el mes de noviembre, y en cuantas sesiones extraordinarias se convoquen, conforme a lo dispuesto en apartado 3 de este artículo.
2. En las sesiones ordinarias, la convocatoria, con expresión del Orden del día, será notificada por el secretario, a cada uno de los miembros de la Mesa, con una antelación mínima de tres días hábiles, e indicará el lugar y hora de la reunión.



3. La Mesa del Comercio de Portugalete se reunirá en sesiones extraordinarias por orden del Presidente, a iniciativa propia o a petición de, al menos, una tercera parte de sus miembros. La convocatoria se comunicará con una antelación mínima de 48 horas, indicando lugar y hora de la reunión, y los puntos propuestos por quienes hubieran instado dicha convocatoria extraordinaria.
4. Para la válida constitución de la Mesa en primera convocatoria se requerirá la presencia al menos de la mitad de sus miembros, entre los que se contarán obligatoriamente el Presidente y Secretario o, en su caso, quienes le sustituyan.
5. En segunda convocatoria, la sesión comenzará 15 minutos después de la hora fijada para la primera convocatoria, y requerirá, en los mismos términos del apartado anterior, la presencia de al menos un tercio de sus miembros.
6. Sin perjuicio de lo establecido en el artículo 6 de este Reglamento para la sustitución de los miembros de la Mesa del Comercio, éstos podrán delegar su voto en cualquiera de sus miembros, para una sesión concreta, siempre que no pudieran asistir los sustitutos nombrados, y lo hicieran por escrito, debiéndose presentar al Secretario de la Mesa, antes del comienzo de la sesión. Este lo comunicará al resto de los miembros al constituirse la mesa. El Presidente/a podrá delegar su voto en el Vicepresidente o Secretario, y estos últimos entre ellos. A efectos de consecución de quórum, se entenderá presente el delegante.
7. Los acuerdos se tomarán por mayoría simple de votos, dirimiendo los empates el Presidente, excepto la modificación de este Reglamento para lo que se necesitará mayoría absoluta.
8. De cada sesión celebrada se levantará Acta por el Secretario, en la que relacionará necesariamente los asistentes a la misma, el Orden del día, el lugar y la fecha de celebración, los puntos principales de las deliberaciones y los acuerdos adoptados, especificando el número de votos emitidos, a favor, en contra y abstenciones. El Acta de cada sesión celebrada se aprobará en la siguiente sesión.

#### **Artículo 8.**

En todo lo no previsto en este Reglamento de Funcionamiento de la Mesa del Comercio del Municipio de Portugalete, será de aplicación lo establecido para los órganos colegiados en la ley 30/1992, de 26 de noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones públicas y del Procedimiento Administrativo común.” Este Reglamento entra en vigor a partir del día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial de la Provincia



## PORTUGALETEKO MERKATARITZA MAHAIAREN FUNTZIONAMENDU ARAUDIA

### 1. artikulua. Xedea

Araudi honen xedea da Merkataritza Mahaiaren eraketa eta barne-jarduera arautzea.

### 2. artikulua. Izaera

Merkataritza Mahaia kontseilu gisara eratu da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 69. artikuluekin, Udal Korporazioen Antolakuntza- eta Jarduera Araudiari buruzko 2568/1986 Errege-Dekretuaren 130. eta 131. artikuluekin eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 22.2. artikuluekin bat etorritik, Merkataritza eta Kontsumo Udal Sailaren barnean kokatuko da edo gai horri buruzko eskumena daukan sailean. Merkataritza Mahaia udal merkataritzaren gaineko aholku organoa izango da eta herritarren parte hartzea eta herriko merkataritza banaketaren interes orokorren aldeko printzipioak onartzen ditu.

### 3. artikulua. Egoitza eta helbidea

Merkataritza Mahaiak Merkataritza eta Kontsumo Saileko bulegoetan dauzka egoitza eta helbidea.

### 4. artikulua. Eginkizunak

- 1) Portugaletoko merkataritza sustatu, bultzatu eta garatzea herriko egoera ekonomikoaren zein sailaren onerako hainbat ekimenen bitartez.
- 2) Eskualde eta udalerrri mailan Portugalete sustatzea merkataritza eta aisialdirako gune gisa.
- 3) Hainbat herri administrazio eskuduni laguntzea ekonomia, gizarte, ingurumen, hirigintza eta araudizko neurriak edo beste mota batekoak sustatzen eta hartzen, Portugaletoko merkataritzaren garapen orekatu eta iraunkorraren alde.
- 4) Merkataritzari buruzko azterlan eta garapen lanak egitea.
- 5) Jarduera soziokulturalak eta enpresa-sustapenekoak antolatzea, hauexek bezalakoak: ikastaro, jardunaldi eta hitzaldiak eta informatzeko edo prestatzeko hainbat jarduera ere bai, merkataritzari edota biztanleriari begira.
- 6) Portugaletoko merkataritzaren sustapena, prestakuntza eta informaziorako materialak hornitzea eta erreproduzitzea.
- 7) Merkararitza animatzeko jarduerak sustatu eta antolatzea.
- 8) Herriko merkataritzarako onuragarri diren hiri guneak hobetu, egokitu eta berreskuratzen laguntzea.
- 9) Jarduerak finantzatzeko ekonomia baliabide besteren eta propioen lorpena sustatzea.
- 10) Foroak Portugaletoko Udalari merkataritza garatu eta hobetzeko komenigarritzat jotzen dituen neurri, ekimen eta proposamen guztiak egingo dizkio.



- 11) Udalak, Ballonti merkataritza-zentroak eta merkataritza elkarteek finantzatuko dituzte jarduerak. Ekitaldi bakoitzeko aurrekontuak baldintzatuko ditu ekarpenak.
- 12) Lankidetzaren publiko-pribatuko entitatearen eratzea, berezko entitate juridiko duela, mahaikideek erabakiz gero horixe dela Portugaleteko merkataritza garatu, sustatu eta bultzatzeko modu onena.

## 5. artikulua. Osaera

Portugaleteko Merkataritza mahaikideak hauexek izango dira:

- a) Portugaleteko alkate-udalburua, presidentea izango dena. Alkatea egon ezean, Merkataritza eta Kontsumo Saileko zinegotziak jardungo du presidente.
- b) Merkataritza eta Kontsumo Saileko zinegotzia presidenteordea izango da.
- c) GATCekeko teknikaria izango da idazkaria. Bera egon ezean, udal teknikariak jardungo du idazkari.
- d) Merkataritza eta Kontsumo Sailaz arduratzen den udal teknikaria.
- e) Udalerriko merkataritza eta ostalarien elkarte guztietako hiru ordezkari. Bilboko Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganbera Ofizialaren errolda eguneratua dagoen kide kopururen arabera ezarriko da ordezkariak.
- f) Ballonti merkataritza-zentroaren ordezkari bat.
- g) Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Sailaren ordezkari bat.
- h) Udalak egoki irizten duenean eta gai-zerrendari dagozkion kontuak betez, Merkataritza Mahaiak berak eskatuta, Kultura, Turismo edo Hirigintza sailerako zinegotziek edo ordezkariak dituztenek hizpidea dutela baina botorik ez parte hartu ahal izango dute. Edozein mahaikidek eskatzen badu eta mahaiak baimentzen badu, beste pertsona batek ere parte hartu ahal izango du, aurreko baldintzetan, aurretiazko 24 ordu eta mahaiaren idazkariari idatziz horren berri ematen dion guztietan.

Mahaiaren osaera zabalik geratuko da gehitzeko, hala herrian dauden azoka ibiltarietako ordezkari bat, nola egoki iristen diren beste hainbat ordezkari, gura izandako helburuak lortzeko.

## 6. artikulua. Izendapena, ordezteak eta kargutik kentzea

1. a) eta b) ataletan aipatutako kideak izango dira bilerak egiten direnean kargu horietaz arduratzen direnak.
2. e), f), g) eta h) ataletan aipatutako kideak elkarteek hautatutakoak izango dira.
3. Erakunde eta elkarte guztiek ordezkariak izendatuko dituzte, hutsegite justifikatua egiterako.
4. Halako batean mahaiko erakunde eta elkarteek kide titularra edo ordezkari kideak alda ditzakete. Mahaiko idazkariari jakinaraziko diote eta idazkariak alkate-udalburuari horren berri emango dio.
5. Aurreko atalean ezarritakoa gorabehera, mahaikideek kargua utziko dute, uko egite formala eginda mahaiari berari edo herri funtzio eko karguetan jarduteko eskubidea kentzen dien zerbait gertatuz gero.



## 7. artikulua. Funtzionamendua

1. Merkataritza Mahaiak azaroan egingo du ohiko batzarra urtero eta deitzen diren ezohiko bilera guztiak ere egingo ditu, artikulua honen 3. atalarekin bat etorriz.
2. Ohiko bileretan, gai-zerrenda adierazita, idazkariak mahaikide guztiei egingo die deia gutxienez hiru lanegun lehenago eta bileraren ordua eta lekua ere jakinaraziko dizkie.
3. Portugaleteko Merkataritza Mahaiak ezohiko bilera egingo du presidenteak aginduta, norberaren ekimenez edo gutxienez kideen herenak eskatuta. Deia egingo da gutxienez 48 ordu lehenago, bileraren ordua eta lekua adieraziz, eta ezohiko bilera eskatu dutenen proposamenak ere bai.
4. Mahaia legez eratzeko lehenengo deialdian kide guztien erdia gutxienez bertaratu behar da. Kide horien artean presidentea eta idazkaria edo beren ordezkioak egon behar dira.
5. Lehenengo deialdiko ordutik ordu laurdena igarota, bigarren deialdia egingo da eta gutxienez kide guztien herena beharko da, aurreko atalak agindutako baldintzekin berberekin.
6. Merkataritza mahaikideak ordezkatzeko, araudi honen 6. artikulua beteta, izendatutako ordezkioak joan ezean mahaikideek bilera zehatz baterako botoa edozein mahaikideri delegatu ahal izango diote idatziz eta bilera hasi baino lehen idazkariari aurkeztu beharko diote horretarako idazkia. Horrek gainerakoei jakinaraziko die mahaia eratzean. Presidenteak presidenteordeari edo idazkariari delegatu ahal izango die botoa eta azken hauek elkarri ere bai. Quoruma lortzeko, ulertuko da delegatzailea bertan dagoela.
7. Erabakiak gehiengoz hartuko dira. Dena den, boto-berdinketa gertatuz gero, presidenteari dagokio kalitateko botoa erabiltzea. Araudia aldatzeko, ordea, gehiengo osoa beharko da.
8. Egindako bilera bakoitzaren akta idatziko du idazkariak. Bilerara joandakoak zehaztearekin batera, gai-zerrenda, lekua eta data, eztabaidatutako hildo nagusiak eta hartu dituzten akordioak adieraziko ditu eta igorritako boto kopurua, baiezkoak, ezezkoak eta abstentzioak, ere zehaztuko ditu. Egindako bilera baten akta hurrengo bileran onetsiko da.

## 8. artikulua

Portugaleteko Merkataritza Mahaiaren Funtzionamendu Araudi honetan xedatu gabea ebazteko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea jo behar da. Araudi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunean hasiko da indarrean.